

ERRIBERAKO KANTINA USTIATZEKO EMAKIDA

KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA

Bermeoko Urian, Gizarte eta Kultura Etxeko Gaztelekuko lokalan, 2017ko martxoaren 17an, goizeko 9:30ak direnean, batzar publikoan batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Aritz Abaroa Cantuariense J^a, zinegotzia
Amaia Elorza Elortegi A^a, zinegotzia
Xabier Ortuzar Butron J^a, zinegotzia
Sergio Ugalde Zabala J^a, zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udal Idazkaria
Edurne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio mahaiko idazkaria.

Kontratazioaren helburua: Erriberako kantina ustiatzeko emakida kontratua

- Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren, udal honetan ez da inolako eskaintzarik hartu. Beraz, lizitatzailerik ez dagoenez kontratu hau hutsik geratzen da.

Kontratazio mahaitik prozesuaren oinarri pleguak, baldintza berdinekin, Tokiko Gobernu batzordeari bideratzea berriro kaleratzeko proposatzen da.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

